









Museo eta dorretxeen IBILBIDEA

Aiara – Artziniega

IE
Irakurketa Erraza









Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

AIARALDEA
HELMUGA PAISAIA DA
EL DESTINO ES EL PAISAJE

araba álava
foru aldundia diputación foral

Lehentasunezko jarduketa eremuak, Eusko Jaurlaritzaren finantzaketarekin
Zonas de Actuación Preferente con la financiación de Gobierno Vasco

Ibilbide hau Arabako Aiaraldean
eta Nerbiogoienan zehar doa.
Historia eta edertasun natural handiko
tokiak dira.

Ibilbidean honako hauek
egin ahalko dituzu:

- **Dorretxe** izena zuten
  antzinako etxeak ikusiko dituzu.
  Etxe horiek oso bereziak dira
  eta **Erdi Aroko** botere- eta defentsa-historiak
  kontatzen dituzte.
- **Bertako tradizio,** arte eta zapore apartak
  erakusten dituzten museoak ezagutuko dituzu.
- **Familia garrantzitsuen bizitzari** buruz,
  arte-estiloak nola aldatu diren
  edo tokiko likorearen historiari buruz
  ikasiko duzu.

Leku bakoitzak lagunduko dizu
bertako iragana ulertzen eta oraina ezagutzen.

Anima zaitez Nerbiogoienak
bakarrik dituen gauzak ezagutzera!

Erdi Aroa: 5. mendean hasi eta 15. mendean bukatzen den historiaren garaia.

Informazio gehiagorako,
QR kode hau eskaneatu.

Museoa

Dorretxea

Aiara – Artziniega

Urduña – Amurrio – Laudio

1. Santxotena Tailer-Museoa
2. Mendieta dorrea
3. Artziniegako Eleiz Museoa
4. La Cámara Orive-Salazar dorrea
5. Los Molinillo de Velasco dorretxea
6. Bengoa dorretxea
7. Artziniegako Museo Etnografikoa
8. Kexaako Monumentu Multzoa
9. Murga dorrea


Tertanga
Delika
Urduña/Orduña
Artomaña
Amurrio
Artziniega
1
2
3
4
5
6
7
8
9
Laudio/Llodio
Orozko

1 Santxotena Tailer-Museoa

Non dago?
Barrataguren auzoa. Artziniega.
www.santxotena.org

Bisita gidatuak | Irisgarria | Parking



Zer da?
Xabier Santxotena eskultorearen lanak erakusten dituen museoa da.
Oteiza euskal eskultore ospetsuaren ikaslea da.

Aldi berean, tailerra ere bada, Santxotenak eskulturak sortzen dituen tokia ezagutu dezakegulako ere.
Tailer-museoa modernoena antzinako erroekin lotzen den tokia da.



Zer ikus dezakezu bertan?
Santxotenaren eskulturak
eta aldi baterako erakusketak,
bisita bakoitza aparta eta oso hurbilekoa
eginarazten dutenak.

Bereziena da, Santxotenak berak
egingo dizula harrera eta eskultura bat
egiteko prozesu osoa azalduko dizula.
Bisita kulturala eta pertsonala da aldi berean,
galderak egin ditzakezulako.
Adibidez, nortzuk dira **agotak?**
Santxotena agota baita.



Agota: Erdi Aroan baztertzen zen gizarteko talde minoritarioa. Zura eta harria lantzen zituzten artisauak ziren.



❷ Mendieta dorrea



Non dago?

Mendieta entitatea. Artziniega.

Liburuxka deskargatu | Sarbidea oinez | Ibilbideak | Museoak hurbil | Haurren jolastokia | Barbakoak

Zer da?

Eraikin bakarra da,
defentsa-dorre baten elementuak ditu
eta bizitegi-jauregi baten elementuak ere bai.

Badakigu 17. mendean,
Felipe de Doyega jauna
eta Casilda de Berganza andrea zirela jabeak.
1624an, dorrea hipotekatu zuten.
Urte batzuk geroago, 1654an
erre egin zen eraikinaren gehiena.

Zer ikus dezakezu bertan?

Eraikin militarren elementuak,
hala nola kanoi-zuloak eta garitoiak.
Leiho handiak eta 16. mendeko armarria ere ditu:
Mendieta familiaren armarria.

Historiaz, nobleziaz eta denboran zehar
gertatu diren aldaketez beteta dago eraikina.

Artziniegako Eleiz Museoa 3



Zer da?
Arteako Andre Mariaren Arte Sakratuaren Museoak interes artistiko handiko pieza erlijioso baliotsuak ditu. Kultura, fedea eta artea lotzen dituen tokia da.

Non dago?
Arteko Aldapa, 2. Artziniega.

P Parking

Eliza





Zer ikus dezakezu bertan?
Pieza erlijiosoak ikus daitezke bai museoan, bai santutegian. Estilo **gotiko-flandiarreko** erretaula nagusia da altxor handiena.

16. mendeko Azken Judizioko pinturak eta ganga apaintzen duten beste pinturak daude santutegian.

Museoan Ama Birjinaren eta Jesus haurraren koloredun zurezko eskultura bat dago. Euskal Herriko irudirik zaharrenetakoa da.







Gotiko-flandiarra: Europan, Herbehereetan sortzen den artea, 1100. eta 1500. urteen bitartean.

La Cámara Orive-Salazar dorrea 4



Non dago?

Soxoguti entitatea. Artziniega.

Liburuxka deskargatu | Sarbidea oinez | Eliza

Zer da?

16. mendearen amaieran,
Lope de La Cámara jaunak
eta Ana de Orive Salazar andreak
dorrea eraikitzeko agindu zuten.
Dorrearen historia xehetasun interesgarriz
beteta dago.

1723an, José Melchor de Molinillo Velasco
y La Cámara zen dorrearen
eta ondoko etxearen jabea.
Etxea Soxogutin zegoen, "zatitutako" herrian,
Aiara eta Artziniega artean zegoelako.

Zer ikus dezakezu bertan?

Dorrea 19. mendean kaltetu zen sute bat zela eta.
Horregatik, hormetan arrakalak daude,
eta harlandu batzuk puskatuta daude.
Sarreran harlandu batzuk falta dira,
lapurreta baten ondorioz.

Dorretik hurbil dagoen eliza ere ikus dezakezu;
familia berak eraikitzeko agindu zuen.

5 Los Molinillo de Velasco dorretxea



Non dago?
Dorreko Aldapa kalea. Artziniega.

Sarbidea oinez | Hirigunea | Tabernak | Frontoia | Bolatoki zaharra | Museoak hurbil

Zer da?
Dorretxe hau 1592an eraiki zuten.
Dirudienez dorretxe hau eraiki zuten,
aurreko dorretxea sute batek suntsitu zuelako.
1836an, gotortu egin zuten.

Zer ikus dezakezu bertan?
Bigarren solairuan, balkoi bat dago
ateburu eder batekin,
eta bertan dagoen inskripzioak hau dio:
"No digas lo que supieres, ni hagas lo que vieres".
(Ez esan dakizuna, eta ez egin ikusten duzuna).

Ateburuaren alde bakoitzean, bi armarri daude.
Ezkerrekoan, arrano bat hegoak zabalduta,
kasket bat gainean eta lehoiak inguruan.

Eskuinekoan, arrano bat kasket baten azpian,
eta **ziklopeen** irudiak ditu ondoan.

Kasketa: antzinako armaduraren atal bat, burua estaltzen zuena.

Ziklopea: kopetaren erdian begi bakarra duen erraldoia.

Bengoa dorretxea 6

Zer da?

15. mendekoa da.
Dokumentuetan lehen aldiz 1640an ageri da Martin de Bengoa jaunak, testamentuan sartu zuenean.

Nahiz eta Erdi Aroko hiri-dorreetako hainbat elementu izan, zenbait adituren ustez, gotorleku bat baino gehiago, bizitegi-jauregia zen.

Zer ikus dezakezu bertan?

Gaur egun etxebizitza-eraikina da, baina familia-armarri berezia kontserbatu du.
15. mendekoa da eta 2 otso eta 2 giltza gurutzatu ditu.



Dorreko leihoek xehetasun finez apaindutako arkuak dituzte.
Horiek erakusten digute zein antzinakoa den eta denboran zehar zein ondo zaindua izan den.



Non dago?

Artekale kalea. Artziniega.

Sarbidea oinez | Hirigunea | Tabernak | Frontoia | Bolatoki zaharra | Museoak hurbil

7 Artziniegako Museo Etnografikoa



Zer da?

Artziniegako museoa museo **etnografikoa** da. Arabako landa-bizitza tradizionala erakusten du, batez ere, nekazaritza, abeltzaintza eta inguruko eguneroko bizitza. Hezkuntza-esperientzia aberatsa eskaintzen du Euskal Herriko ohiturei eta bizimoduari buruz.

Non dago?

Arteko aldapa, 12. Artziniega.
www.artziniegamuseoa.eus

Bisita gidatuak | Irisgarria | Parking

Etnografikoa: hainbat pertsona-talderen bizitza, ohiturak, tradizioak eta izaerak azaltzen dituena.



Zer ikus dezakezu bertan?

Iraganeko objektuak eta tresnak daude.
Inguruko biztanleen ohiturak, lanbideak
eta bizimodua erakusten dituzte.

Gauza berezienetako bat da
areto guztiak erabil daitezkeela
hainbat gai ezagutzeko.
Baserriko sukalde bat
eta antzinako eskola bat ditu.
Horrek iraganera bidaiatzeko
eta Artziniegako eta inguruetako biztanleak
iraganean nola bizi ziren sentitzeko
aukera ematen dio bisitariari









❽ Kexaako Monumentu Multzoa



Non dago?
Kexaa entitatea. Ayala.

Parking | Bisita gidatuak | Web

Bisitatzeko, begiratu bisiten egutegia.

Zer da?
Kexaan, Ayalatarren orubea dago.
Tokia ez zuten ausaz aukeratu,
gune garrantzitsua zelako baizik, Gaztela
Bizkaiko Enkarterrien eskualdearekin
eta kostarekin lotzen zituelako.

Kexaa 1095ean aipatzen da
aiararren eta Pedro Nazar
Naiarako apezpikuaren arteko akordio batean.
1378an, Fernán Pérez de Ayalak
San Juan komentua sortu zuen
eta 1399an, haren semeak, kantzilerrak,
Virgen del Cabelloko kapera.

1566an, sute batek suntsitu zuen komentua,
baina gainerako eraikinak salbatu ziren.
2023tik, multzoa Arabako
Foru Aldundiarena da
eta Kultura Ondasun bezala
kalifikatua dago.

Zer ikus dezakezu bertan?

Multzoa nabarmentzen da
diseinuagatik eta kontserbazioagatik.

Kantzilerra eta bere familia ehortzita daude kaperan.
Kaperak hainbat arte forma lotzen ditu,
arkitektura, eskultura, pintura eta **urregintza,**
sortzaileen hilezkortasun ideiarekin.

Kantzilerraren eta Leonor de Guzmánen
hilobia alabastroz egina da.
Toledon egin zen, Ferrand Gonzalezen tailerrean.
Hildakoak idealizatuta erakusten ditu,
noblezia eta leialtasuna
adierazten duten xehetasunekin,
hala nola ondoan dituzten txakurrekin.

Jatorrizko erretaula 1396koa da.
Gaur egun, Chicagoko Art Instituten dago.
Bertan ageri dira Jesusen
eta Ama Birjinaren bizitzako eszenak
eta familiaren hainbat belaunaldiren erretratuak.
Kaperan erretaularen erreplika bat dago ikusgai.

Urregintza: metal preziatuz egindako artelana.



❾ Torre de Murga



Non dago?

Murga entitatea. Aiara.

Parking pribatua | Bisita gidatuak | Web

Bisitatzeko, erreserba egin behar da.

Zer da?

Dorrea 14. mendearen erdialdean
eraiki zuten, lurraldea kontrolatzea helburuarekin.
Dorrearen diseinua defentsarako
eta zaintzarako pentsatu zen,
etxebizitza multzoa izateko baino.

16. mendean, hurbileko jauregia eraiki zuten.
Dorrea ez zuten jauregiarekin lotu, baizik eta
bi eraikinak modu independentean existitu ziren,
gaur egungo irudi bereizgarria osatuz,
Erdi Aroko dorrea jauregiak inguratuta.

Murgako dorreak jabe ospetsuak izan zituen,
hala nola, José María de Murga,
El Moro Vizcaíno izenez ezaguna,
euskal esploratzaile ospetsua.

Zer ikus dezakezu bertan?

Inguruan aldaketak egon arren,
dorrearen kanpoko itxura ez da ia aldatu,
eta jatorrizko esentziari eutsi dio.